LANKIDETZA-HITZARMENA

Beasainen 2017ko ekainaren 12an

BILDURIK

Alde batetik, Mikel Insausti Muguruza jauna, [redacted] NAN zenbakia duena eta KUTXAGESTION ZERBITZUAK, S.L.U.-ren izenean (hemendik aurrera KUTXA EKOGUNEA) eta ordezkari gisa. Hark B75146043 I.F.Z. zenbakia du, helbidea Paseo Mikeletegi 43, Donostia, P.K 20009.

Bestetik, Aitor Aldasoro Iturbe jauna, adinez nagusia eta [redacted] N.A.N. zenbakia duena, BEASAINGO UDALAren izenean eta ordezkari gisa. Hark P2002100B I.F.Z. zenbakia du eta helbidea Loinazko San Martin plaza, 1, Beasain, P.K. 20200.

Bi aldeak dokumentu hau formalizatzeko bildu dira, eta aurrekari hauek adierazi dituzte:

AURREKARIAK

Lehena: Kutxa Ekogunea ingurumen eta hizkuntza kudeaketa irizpide ekologikoak txertatzen dituen BARATZE PARKE SAREA izeneko baratze ekologikoen sarea bultzatzen ari da Gipuzkoan.

Bigarrena: Bi aldeek elkarrekin lan egin nahi dute BEASAINGO BARATZE PARKEA proiektuan, Beasaingo udalerrian erabilera publikoa izango duten baratzeak sortzeko helburuarekin; hala, BEASAINGO BARATZE PARKEA sortuko da eta BARATZE PARKE SAREko kide bat izango da.

Hirugarrena: Proiektua eta aurrekontua landu ditu Beasaingo Udalak, hitzarmena sinatzen duten bi aldeek partekatzen dituzten irizpide jasangarriak kontutan edukiz.

Laugarrena: Proiektua hasi eta bukatu arteko fase guztiak garatzeko nahia eta BARATZE PARKE SAREAn integratzeko nahia adierazi dute bi aldeek.

Eta horretarako, lankidetza-hitzarmen hau formalizatu dute, ondorengo klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehena: Bi aldeek, elkarrekin adostuta, beren betebeharren oinarri gisa BEASAINGO BARATZE PARKEA proiektua ezagutzen dute, eta bukaeraraino gauzatzeko konpromisoa hartu dute, zeinahi dela ere bukatzeko beharko diren faseen iraupena. Hitzarmen honen eranskin gisara proiektuaren ardatz nagusiak, Baratze Parke Sarearen zerbitzuak, Sareko Baratze Parketarako laguntza ekonomikoak, Sareko partaideen diru kuotak, proiektuaren plano orokorra eta Beasaingo Baratze Parkerako erremintak zehazten dira.

Bigarrena: Kutxa Ekoguneak lankidetza-hitzarmenaren barruan betebehar hauek onartzen ditu:

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN * ALKATETZA * ALCALDIA

1. Betebehar tekniko eta ekonomikoak:

- BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko eta behin martxan egotean, egoera egokia bermatzeko, 2. Eranskinean zehazten diren zerbitzuak eskainiko ditu.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko behar den finantzaketan parte hartzea, 3. Eranskinean adierazten denaren arabera. Diru sarrera, kontu zenbaki honetan egingo da: ES53 2095 5030 88 1060024543.
- Behar izanez gero, lurraren egoera hobetzeko plangintza eskainiko dio Udalari, beti ere, erabiltzaileek baratzezaintzarako lur egokiak jaso ditzaten.
- Baratze Parke Sareko kuotak kobratzeko (4. Eranskina), Kutxa Ekoguneak Udalari igorriko dio honako faktura hauek:
    - 2017ko Sareko kuota: abenduan, BEASAINGO BARATZE PARKEA martxan jartzen den egunetik hasita, abenduko 31 arteko epeari dagokion zati proportzionala fakturatuko da.
    - 2018ko Sareko kuota: ekainean, lehenengo seihileko kuota fakturatuko da eta abenduan berriz, bigarren seihilekoa.
    - 2019ko Sareko kuota: ekainean, lehenengo seihileko kuota fakturatuko da eta abenduan berriz, bigarren seihilekoa.
    - 2020ko Sareko kuota: ekainean, lehenengo seihileko kuota fakturatuko da eta abenduan berriz, 3 urteko konpromisoa bete arteko epeari dagokion zati proportzionala.
- Hirugarren urtea betetzera doanean, Kutxa Ekoguneak BEASAINGO BARATZE PARKEAri sarearen kidea jarraitzeko aukera eskainiko dio, eta hala adostuz gero, adostasunaren baldintza berriak jasoko duen dokumentu berri bat sinatuko dute bi aldeek.

2. Komunikazio arloko betebeharrak:

- BEASAINGO BARATZE PARKEArekin lotutako agiri eta dokumentuetan Udalaren logoa ezarriko du Kutxa Ekoguneak.
- BEASAINGO BARATZE PARKEArekin lotutako komunikazio eta difusiorako ekimen guztiak (prentsa oharrak, prentsaurrekoak, etab.) jakinaraziko dio Beasaingo Udalari, zabalkundea modu koordinatuan eta elkarlanean jarduteko asmoz.
- Kutxa Ekoguneak Sareko panel identifikatiboaren diseinu lanak eta erabileraren irizpideak bere gain hartuko ditu, betiere udal bakoitzaren beharrei egokituz.
- Medioekiko zein gizarteari zuzendutako ekimen guztietan Kutxa Ekogunea BARATZE PARKE SAREA proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile bezala azalduko da, udalerriak Baratze Parke Sarea proiektuarekin bat egiten duelarik.
- BEASAINGO BARATZE PARKEko baratzezainen datu pertsonalak hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeen eskuetan izango dira, BARATZE PARKE SAREko zerbitzuak egoki kudeatzeko. Ondorioz, Kutxa Ekoguneak BEASAINGO BARATZE PARKEko baratzezainen datu pertsonalak erabiltzeko eskubidea izango du, beti ere, Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa beteaz.

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN * ALKATETZA * ALCALDIA

Hirugarrena: Beasaingo Udalak lankidetza-hitzarmenaren barruan betebehar hauek onartzen ditu:

1. Betebehar tekniko eta ekonomikoak:

- BARATZE PARKE SAREko ekologia irizpideak -ingurumenari eta hizkuntza-ekologiari dagozkionak- betetzea eta BEASAINGO BARATZE PARKEko Araudian txertatzea.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA gauzatzeko lanak bere gain hartuko ditu.
- Baratzezaintzarako lur egokiak direla bermatuko du Udalak, lurren drainatzea, testura eta emankortasuna kontutan edukiz proiektuaren hasieratik. Udalak lurrak aztertuko ditu eta emaitzen arabera, proiektuan eta obretan, beharrezko lanak txertatuko ditu, lursailak baratzezainei eman aurretik, lurrak egoki landuta eta ongarrituta egon daitezen, iragazgaitz-arazorik gabe.
- Beasaingo Udalak panel identifikatiboaren instalazio-lanak bere gain hartuko ditu.
- Hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita urtebete pasatzen bada Baratze Parkea gauzatzeko obrak amaitu gabe, Beasaingo Udalak Kutxa Ekoguneari itzuli egingo dio jasotako diru-laguntza osoa.
- Deialdi bat antolatuko du Udalak, baratzea edukitzeko interesa duten herritarrak bilera batera gonbidatuz. Kutxa Ekogunearekin batera, BEASAINGO BARATZE PARKEAren ezaugarri eta xehetasunak azalduko ditu.
- "Baratzezaintza ekologikoaren oinarriak" baratzekideei zuzendutako ikastaroa burutzeko antolaketan lagunduko du.
- Baratze Parkea inauguratzeko, lursailak esleituta egongo dira gutxienez %75ean.
- BEASAINGO BARATZE PARKEAk eskatzen dituen mantenu lanak identifikatuko ditu udalak, baita urteroko aurrekontutan partida bat onartu, baratzearen funtzionamendu egokia bermatzeko helburuz.
- BARATZE PARKE SAREAn egongo da, gutxieneko lehenengo 3 urtetan, Baratze Parkea martxan jartzen den egunetik kontatzen hasita.
- BARATZE PARKE SAREko hitzartutako 4.759 €-ko urteko kuota (4. Eranskina) ordainduko dio Kutxa Ekoguneari, "Kutxa Ekogunearen Betebehar tekniko eta ekonomikoak"-eko atalean azaltzen den moduan.
- Hitzarmenaren exekuzioaren jarraipena nahiz koordinazioa egiteko arduradunak ondorengoak izango dira:
-
    - Udalaren aldetik, udal Zerbitzu Burua.
    - - EKOGUNEren aldetik, Amalia Virto andrea.

- BEASAINGO BARATZE PARKEA beti beteta egon dadin eta baratzeak uzten dituzten kideak ordezkatzeko, eskatzaileen poltsa bat egunean edukiko du.
- BEASAINGO BARATZE PARKEAren araudiaren betetzearen jarraipena egingo du eta bertan zehazten den diziplina atxikitzeko neurriak ezarri ere.

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN * ALKATETZA * ALCALDIA

2. Komunikazio arloko betebeharrak:

- Baratze Parke Sareko panela izango da BEASAINGO BARATZE PARKEA-ko panel identifikatibo bakarra, Udal, Kutxa Ekogunea eta Kutxabank-eko logoak bertan txertatuko direlarik.
- Baratze Parkearekin lotutako agiri eta dokumentuetan Kutxa Ekogunearen logoa ezarriko du Udalak proiektuaren bultzatzaile gisa.
- Komunikazio eta difusiorako ekimen guztiak (prentsa oharrak, prentsaurrekoak, etab.) jakinarazioko dio Kutxa Ekoguneari, zabalkundea modu koordinatuan eta elkarlanean jarduteko asmoz.
- Medioekiko zein gizarteari zuzendutako ekimen guztietan Kutxa Ekogunea Baratze Parke Sarea proiektuaren sortzaile eta bultzatzaile bezala azalduko du Beasaingo Udalak, udalerriak proiektuarekin bat egiten duelarik.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA-ko baratzezainen datu pertsonalak hitzarmen hau sinatzen duten bi aldeen eskuetan izango dira, Baratze Parke Sareko zerbitzuak egoki kudeatzeko. Ondorioz, Beasaingo Udalak Kutxa Ekogunearekin baratzezainen datu pertsonalak konpartituko ditu, beti ere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa beteaz eta lursaila eskuratuko duten baratzekideen baimena izanez.

Laugarrena: Kutxa Ekoguneak udalarekin batera gainbegiratuko du proiektuaren eta bere faseen gauzatzea. Aldi berean, proiektua gauzatu edo betearaztea Beasaingo Udalaren erantzukizuna izango da.

Bosgarrena: Agiri honetan agertzen ez diren klausulei dagokienez, Kutxa Ekoguneak eta Beasaingo Udalak eranskinetan ezarritakoa beteko dute.

Bildutakoak ados daude agiri honetako aurrekari eta klausulekin, eta izenpetu egin dute.

Kutxa Ekogunea
Sinatua: Mikel Insausti Muguruza

Beasaingo Udala
Aitor Aldasoro Iturbe

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

ERANSKINA: PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIAK

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Aisialdi aktiboa sustatu.
- Hiri, herri, auzo, eta abarretako bizitza kalitatea hobetzeko gune berri bat sortu.
- Nekazaritza ekologikoa bultzatu.
- Baratzeen erabiltzaileengan eta, bereziki, haurrengan, naturarekiko errespetua sustatu (energia berriztagarriak, bioaniztasuna, etab.).
- Gizarte-talde ezberdinen arteko elkarbizitza eta harremanak bultzatu, gizonen eta emakumeen arteko proportzioak zaindu, belaunaldi ezberdinen arteko hartu-emana bultzatu, arazoak dituzten giza taldeei lagundu.
- BEASAINGO BARATZE PARKEA, BARATZE PARKE SAREAn barruan sartu.

PROIEKTUAN TXERTATEA GOMENDATZEN DIREN GAIAK

- Baratzak emateko irizpideak udal bakoitzak ezarriko dituen arren, Baratze Parke bakoitzean era guztietako jendea biltzeko eskatuko die Kutxa Ekoguneak: jubilatuak eta gazteak, gizon eta emakumeak, elkarteak eta eskolak, elbarriak, eta abar.
- Herriko ikastetxe, elkarte eta erakundeen partaidetza sustatu, Baratze Parkeko lursailak zuzenean eskainiz.
- Behar bereziak dituzten pertsonentzat gordetako lursailak euren beharretara egokitu: aparkalekua, sarbideak, saila bera (forma, altuera, e.a), ureztaketa sistema, e.a.
- Genero ikuspegitik gizonen eta emakumeen arteko proportzioa mantentzeko, genero bakoitzaren eskaera-kopuruaren portzentajearekiko proportzionalki banatu lursailak.
- Erakunde sustatzaile bakoitzaren helburuen arabera, esleipen-irizpide desberdinak finkatu ahalko dira zenbait kolektiboren alde egiteko: gizarte-egoera ahuleko familiak, elkarteak, e.a.
- Baratze Parkeko hondakin organikoen konpostaketa bermatu, baliabideak jarriz, baratzetako erabiltzaileak gauzatu dezaten.

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA

1. ERANSKINA:
BARATZE PARKE SAREKO ZERBITZUAK

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 1. FASEAN (PROIEKTUAN)?

- Proiektua eta sarearen informazioa (bilerak+dokumentazioa+weba+parkeetara bisitak, ...).
- Baratze Parketarako jasangarritasunarekin lotutako irizpideak eta Udalari lagundu proiektuan txertatzen.
- Baratze Parkeko diseinurako laguntza teknikoa.
  Hitzarmena sinatu Udalarekin.
- Diru laguntza.
- Lursailak esleitzeko irizpide eredu desberdinak.
- Araudia eredua .

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 2. FASEAN (BARATZEA ERAIKITZEAN)?

- Obra hasiera eta bukaerako ikuskaritza.
- Lurraren ikuskaritza eta aholkularitza.
- Baratze Parke sarreran jarriko den Sareko panelaren edukiak, diseinua eta exekuzioa.
- Proiektua herritarrei aurkeztu
- Baratzekideen Elkartea gauzatzeko ereduak.
- Herriko Baratze Parkeko erabiltzaileei "Baratzezaintza ekologikoaren oinarriak" ikastaroa doan eman eta kostea jaso.
- Baratze Parkeak eskatzen dituen mantenu lanen identifikaziorako laguntza.
- Baratze Parkearen inaugurazioa antolatzen lagundu.

ZER ESKAINTZEN DU SAREAK 3. FASEAN (BARATZE PARKEA MARTXAN)?

- Udalak eta Baratzekideen Elkarteak Baratze Parke Sareko urteko Topaketetan parte hartzeko aukera : urteko plangintzari buruz informazioa, Sarearen zerbitzuak hobetzeko proposamenak, informazioa trukaketa...
- Furgobaratza edo ordezko zerbitzua (9 aldiz/urtea), Udalarekin urte hasieran adostuko dena. Gutxienez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:
  - Baratzaren ikuskaritza (azpiegiturak, konpostaguneak eta partzelen egoera), txostena bidaliz Udalari eta Elkarteari.
  - Aholkularitza zuzena baratzekideei.
  - Landare ekologiko eta baratzetako produktu ekologikoen salmenta zuzena.
  - Sareko eskaintza desberdinen komunikazioa eta baratzekideen proposamenak jaso.
- Materialak eta produktuak, deskontuekin:
  - Bellota erremintak (%35ko deskontuarekin).
  - Zicla, kanpoko altzariak (%35ko deskontuarekin).
  - Protec, kanpoko altzari eta estrukturak (%20 arteko deskontuekin).
- Erantzukizun zibileko asegurua.
- Doako ekimenak Baratze Parkean (komunitatea sendotzeko helburuz): tailer praktikoak, azokak eta erakusketak, hitzaldiak, auzolanen antolaketa, familientzako tailerrak, e.a.
- Baratze Parketako beharretara egokitutako formazioa zerbitzua, prezio murriztuetan (tailer motzak, ikastaroak...).
- Lurren emankortasuna mantentzeko gomendio teknikoak, Baratze Parke bakoitzari egokitutakoak.
- Konposta egina eta egituratzailea, baratzetako hondakinekin konposta egiteko.
- Baratzetako lan-zerbitzuak, kartara: material organikoa txikitu; lurren prestaketa-lanak, inguruko landaretzaren garbiketak, e.a.
- Asteroko boletina eta Baratze Parke Sareko webgunea: eguneratutako informazioa, aholkularitza zuzena, e.a..

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN *ALKATETZA*

- Ekoguneko baliabideak: ikasgelak, karpak, bilera gelak...
- Ekoguneko kanpainak herrian gauzatzeko erraztasunak.

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

2. ERANSKINA: SAREKO BARATZE PARKEENTZAT LAGUNTZA EKONOMIKOAK

BERDEZ, BEASAINEN KASUA

Baratzetako partzela kopurua	Laguntza	Laguntzaren banaketa		
		Sareko panela	Baratzetako erremintak	€
100 edo gehiago	**14.700 €**	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 14.700 € arte gelditzen dena
66-99	**12.870 €**	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 12.870 € arte gelditzen dena
40-65	**11.040 €**	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 11.040 € arte gelditzen dena
30-39	**7.350 €**	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 7.350 € arte gelditzen dena
30 baino gutxiago	**6.500 €**	1.265 €	36,92 € x partzela kopurua	Aurreko bi kontzeptuak kenduta, 6.500 € arte gelditzen dena

BERAZ:

Lursail kopuruaren araberako diru laguntza	11.040,00
Baratze Parke Sareko panela	1.265,00
Beasaingo Baratze Parkeari dagokion erreminten kostea	2.364,23
Kutxa Ekoguneak Beasaingo Udalari luzatuko dion dirua	7.410,77

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN ALKATETZA ALCALDIA


3. ERANSKINA:
SAREAN PARTE HARTZEAREN KUOTAK

BERDEZ, BEASAINGO KASUA (3 urteko konpromisoa)

Baratzeko partzela kopurua	Baratze Parketako urteko kuotak, furgobaratzaren zerbitzua barne (ikuskaritzak eta besteak)
100 edo gehiago	6.351 €
66-99	5.541 €
40-65	4.759 €
30-39	3.759 €
30 baino gutxiago	2.874 €

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

4. ERANSKINA: PROIEKTUAREN PLANOA



BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

5. ERANSKINA: BEASAINGO BARATZE PARKERAKO ERREMINTAK

BEASAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN
ALKATETZA
ALCALDIA

Erremintak	Bellotaren modeloa	Baratze Parkeko erreminta kopurua	€ denatara	Deskontuaren kopurua (35%)	%35ko deskontua aplikatuta koste finala (€)
Karretilak	WB 2004 STEEL WHEELBARROW	8	528,8	185,08	343,72
Ureztailuak	WN 28005 CO WATER CAN 5 L	10	49,5	17,33	32,18
Ureztailuak	WN 28010 CO WATER CAN 10 L	10	90,5	31,68	58,83
Aitzur handia	Azada 2A	12	210	73,50	136,50
Aitzur handia	Azada 3A	12	238,2	83,37	154,83
Aitzur txikia	Azadilla 232-A	9	107,55	37,64	69,91
Aitzur txikia	Azadilla 242-0AZ	9	106,65	37,33	69,32
Aitzur handien kirtena	Mango azada M4-900 (para azadas 2A y 3A)	24	164,4	57,54	106,86
Aitzur txikien kirtena	Mango azadilla M1-900 (para azadilla 232-A)	9	50,85	17,80	33,05
Aitzur txikien kirtena	Mango azadilla M0-900 (para azadillas 242-0AZ)	9	48,6	17,01	31,59
Sardea	Horca espiga 902-4 M.A.	6	237,3	83,06	154,25
Sardea	Horca cavar espiga 9111-4 M.A.	6	242,4	84,84	157,56
Pala punta borobila	Pala 5501-2 MM	3	46,95	16,43	30,52
Pala punta zuzena	Pala 5502-2 MM	3	48,15	16,85	31,30
Palerra	Palote 5604-24 M.M.	12	499,8	174,93	324,87
Erratza	BM 61002 CO Cepillo MA ML	3	74,25	25,99	48,26
Baldea	BK 24026 CO GARDEN BASKET 26 L	9	63,9	22,37	41,54
Eskoarea	Rastrillo Hobby 952-12	3	14,55	5,09	9,46
Eskoarea	Rastrillo Hobby 952-14	3	15,15	5,30	9,85
Platikozko eskoarea	Escoba de plástico 32" 3034-32	3	39,75	13,91	25,84
Kirtena	Mango de madera para rastrillo M952	3	16,29		16,29
Kirtena	Mango de madera para rastrillo M952 L-1500	3	17,79		17,79
Kirtena	Mango escoba de plástico M3 034	3	15,69		15,69
Kimaketarako guraizeak	Tijera de podar 3501-20	6	52,2	18,27	33,93
Denatara (BEZ-a gabe)					**1.953,91**
% 21 BEZ-a					**410,32**
BEASAINGO BARATZE PARKEKO ERREMINTEN KOSTE TOTALA					**2.364,23**

BEASAINGO UDALA AYUNTAMIENTO DE BEASAIN * ALKATETZA * ALCALDIA